

**II - ARABAKO LURRALDE  
HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA****URKABUSTAIZKO UDALA****Urkabustaizko Musika Eskola Publikoan ematen diren jarduerengatiko tasak arautzen dituen ordenantza fiskalaren aldaketa behin betiko onartzea**

Udalbatzak 2022ko urriaren 26an egindako ohiko osoko bilkuran (2022ko azaroaren 4ko ALHAO, 126 zenbakia) Urkabustaizko Musika Eskola Publikoan emandako jarduerengatiko tasak arautzen dituen ordenantza fiskalaren 2023-2024 ikasturterako aldaketari buruz hartutako erabakia jendaurrean jartzeko epea igarota, eta horren barruan erreklamaziorik aurkeztu ez denez, ordura arte behin-behinekoa zen erabaki hori behin betiko bihurtu da, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikuluan eta Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauaren 16.3 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Aipatutako foru-arauaren 16.4 artikuluan aurreikusitakoa betez, aipatutako zerga-ordenantzaren testu aldatua argitaratzen da, eta ALHAOn argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera izango ditu ondorioak. Honela dio hitzez hitz:

**Urkabustaizko Musika Eskola Publikoan ematen diren jarduerengatiko tasak arautzen dituen ordenantza fiskala. 2023-2024 Ikasturtea**

Urteko matrikula	75,00 euro
------------------	------------

**Hileroko kuotak (10 hilabete):**

Hizkuntza musikala / Musikaren hastapenak	12,00 euro/hilean
Abesbatza-kantua	12,00 euro/hilean
Musika-tresnak eta bakarkako kantua	20,00 euro/hilean
Musika-tresna taldea	7,00 euro/hilean

Hala jakinarazten da, zabalkunde orokorra izan dezan.

Izarra, 2022ko abenduaren 21a

*Alkatea*

**XABIER ÁLVAREZ DE ARCAYA FERNÁNDEZ DE LANDA**